

II ZATIA: Nerbio sistema begetatiboaren farmakologia.

1.- Miastenia gravis-en kasu bat

Ikerrek **Miastenia gravis** pairatzen du. Astero anbulategiko fisioterapia kontsultara hurbiltzen da errehabilitazio saioa egitera. Ikerrek neostigmina hartzen ari dela, eta hau eraginkorra izan arren efektu desiragaitzak ere eragiten dizkiola esaten dio fisioterapeutari. Fisioterapeutak oso ondo ezagutzen dituen zer farmako mota den neostigmina eta honek sor ditzakeen eragin kaltegarriak, hau guztia azaltzen dio Ikerri. Gainera neostigmina gaindosia izatekotan erabilgarria izango litzatekeen farmakoa aipatzen du fisioterapeutak.

Zehatz ezazu fisioterapeutak emandako informazioa.

2.- Zer da propranolola?

M.R., 48 urteko gizonak takikardia suprabentrikularra pairatzen du (180 taupada/min). Azken urtetan propranolola (60 mg/egun) eraginkorra izan da takikardiak arintzen, baina bihotz funtzioa hobetzeko asmoz errehabilitazio programa batean sartzea gomendatu dio medikuak. Hori dela eta, fisioterapeutaren ardurapean 45 minututako saioa betetzen du astean hiru aldiz. Saio bakoitzean berotze-arietak (kalistenikoak), ergometria, bizikleta, eta luzaketak egiten dira.

Zer motako farmakoa da propranolola? Zer izan beharko luke kontuan fisioterapeutak errehabilitazio programa hasi baino lehen?

3.- Espastizitatearen tratamendua.

Ander, 28 urteko mutilak berriki gertatutako motorra istripuaren ondorioz paraplejia pairatzen du. Mugikortasuna berreskuratzen hasi eta errehabilitaziorako oso motibatua izan arren, espastizitateak areagotu egiten du

beheko adarretan. Horrek makulu erabilera zaila bihurtzen dut bere autonomia kaltetuz. Gaixoak diazepama hasi zen hartzen, 2 mg egunean bi aldiz, eta medikuak 30 mg-ko dosia egokitu zion efektu antispasiko handiagoa lortzeko.

Zer eragin kaltegarririk paira lekaze Anderrek?

Egokia izan da diazepamaren erabilera? Beste aukera farmakologikorik ezagutzen al duzu espastizitatea tratatzeko?